

## Gure planak, euskal azentuaren alorrean

Aste honetan barrena, egunero elkartzen gara, Larraona egoitzan, berrogeitarik euskaltzale, eta euskal azentuaren gorabeherak azentuz ditugu. Asteburuan, berriz, gutuz zabala izango den Biltzarre orokorrean, jende gehiago bilduko gara; eta oinarriko puntu batuztan elkar-aditzen saiatuko gara.

Zergatik hau gutzia? Edo, agian, zertarako?

Hizkuntzen normalizaziorako bidean, jakina denez, mintzaira bera prestatu behar da aurretik, «standards» (Batura delakoa) ahalik eta zehazkienez zedarrituz.

Prozesu horretan lehenengo urratsa hizkuntza idazterean mailan burutzea, normala da; eta halaxe jokatu da euskararen kasoan.

Hizkuntzak, ordea, funtsean, mintzatuak izateko daude. Eta, hortaz, gutuz premiazkoa da gaur bigarren pausua ematea; hau da, ahokoz koda zedarritzea; eta, honen barruan, Euskara Batuaren Azentu-Eredua erabakitzea.

Behar hau nabarmena da. Interferentzi maila gora doa; eta berehala proposatu behar da bide bat.

Honetaz jabeturik dago Euskaltzaindia; eta horregatik antolatu zituen, besteak beste, Azkoitiko (1982) eta Durangoko (1986) bilerrak.

Espero ziren erabakiak ez ziren hartu, ordea; eta, hori dela bide, eta hauatikunak argitzekotan, aurtengo UEUaren barruan, azentuari buruzko Mintegi bat eta Biltzarre

orokor bat antolatzera erabaki genduen euskaltzale batzuk.

Azentu-mota desberdinak daude. Harrigarri gerta badaiteke ere, Mitxelena orain dela 15 urte sailkatu zituen lau eredu nagusiak (eta sailkapenaren xuxena azpimarratu behar harko da berriro) oso desberdinak dira: erreliebez, azentuaren posizioaz, plural/singular berezterako sistemaz, are azentuaren moldeaz beraz ere: IV. motakoa, erabat aldakaitza den bezala; I. motakoa, morfologiaren araueru zehaztzen da funtsean; II. eta III.a, aldiz, fonologik berak eragin nagusia duela iri. Denen gustoko hautaketarik lortzerik ez dago; eta jator aitortzen dugu denen aurrean. (Ortografian edo aditzean, dena dela, egoera berbera ezagutu genuen).

Funtsezko arrazoi batzu badaude, halere, hautaketa egokiro egiteko:

1.—Bai Hizkuntzalaritza hutsak, eta bai Soziolinguistikak, «Tipo 1» derizton moldera begiratzera bultzatzen gaituzte.

2.—Azentu-unitatea (edo klitikoan zerrenda, nahiago bada) berbera da euskalki gutzieta.

3.—Hitz markatuen lerrokada, era berean, gutxi gora behera bederen, bera edo bertsua dela dirudi.

4.—Entonazioaren eragina (enfatikoa, galderazkoa, zerrendaketazkoa) hurrengo pausu baterako utz daiteke.

Dokumentu nagusiz osatutako

bilduma bat prestatu du UEUak (500 bat folio); eta dokumentu hori (Mitxelena, Azkue, Altube, Lafon, Basterretxea, Jacobsen, Holmer etab.) doharik banatu zaie biltzar-kide nagusiei.

Euskal azentuaren arazoan zerbait esan dezaketen instituzioei pasa zaie gomita (Filologi Fakultateak, Euskaltzaindia, HABE, AEK etab.); eta berriro ere egiten dugu deia: ateak zabalik daude, eta Biltzarre jende asko etortzea nahi genuke.

Biltzarrean ez da inolako erabakirik hartuko; gu ez gara inor erabaki hoiak hartzeko. Eginkizun hau Euskaltzaindiari dagokio. Garbi ager dadila.

Guk oinarriko proposamen batzuratara heldu nahi genuke. Proposamen hoiak publiko cgingo ditugu, eta Euskaltzaindiari ere helaraziko zaizkio.

Gure uestez bost bat urtez utz daitezke horretan proposamen horiek Epe horretan, espero dugu, kritikak, ikerlanak eta tesiak burutuko dira. Hori gutzia horrela ikurdirik, eta herriaren erantzuna ikurdirik (arazo hau soziolinguistikoa baita) Euskaltzaindiak, agian, 1992 emun lezake, urrats sendoren bat eman uzate.

Horra hor, beraz, argi-eta-garbi, UEUak zer helburutan antolatu duen aurtengo saioa hau.

TXILLARDEGI

**udako euskal unibertsitatea**



### Jon Lasa, musika beste gai gutzieta zabaltzen

Duela hiru urte azaldu zen lehen aldiz Jon Lasa UEUtik, urtean zehar egiten duen lanaren ondorio duen esperientzia zabala jendeari zabaltzeko eta ezagutarazteko, musikako irakaslea bait da azken hamar urte hauetan Lasarteko Landaberri Ikastolan. Lehenengo bost urteetan musika era tradizionalago batez irakasten zuen, hau da, ordu batez klase aparte batean. Duela bost urte musika klasea beste gaiak irakasteko baliagarria dela frogatzen hasi zen Landaberri Ikastolan, martxan jarri zuen esperientzia honek bost urte bete bait ditu janarik.



### Bittor Uruga: «Literatur kritika gutxi egiten da»

Urtean zehar Bilboko Deustuko Unibertsitatean, Euskal Filologiako irakaslea dugu, eta, batez ere, euskal testoen azterketaren inguruan kokatzen du bere lana.

Duela bederatzir urte agertu zen, familiaz Barakaldokoa baina bilbotarra den irakasle hau UEU, eta hasieran Fisika sailean aritu bazen, duela zazpi bat urte literatur sailari ekin zion.

Euskal Herriaren literatur kritika gutxi egiten dela dio Bittorrek. Herri honek bizi duen egoera politikoak literatur kritikan ondorio haundiak dituen galdetzerakoan, «arazo politikoak baino, adiskidetasun eta etsai edo ez hain adiskidetasunak izateak ditu ondorioak egiten den literatur kritikan», esan digu.

### Penitengia gite

Horixe esaten omen zuten XIII. mendeko katarroek. Penitentzia egin zera irabazteko; gorpuz zigortu arima garbitzeko.

Halako zerbait gertatu da Udako Euskal Lazaretoan: hainbat eta hainbat gorpuz modifikatzen ari. Espero gabeko gaisotasuna dela medio. Hori bai, arima behintzat garbi garbi izango dute honezkeru.

Ez dakigu ziur nondik azaldu den UELKO partaide erdiak ohean botata egotera behartu duen gaitz hau. Medikuek garbi adierazi dute hain gustora afaldu genuen mahonesa hark zenbait zomorro zituela gure gorpuzak oso gogoko ez dituenak. Bada, ostera, pentsatzen duenik Jaungoikoaren zigorra dena, eta Larraonako kapillako Jesukristok —normalean hain bakarririk dagoenak— kriston bisita pila eduki du, eta bakarrik norbait bisitatu aurretik Roca jaunak bisitatzeke hausten da kapilla horretako otoiitz eta baka. Beste berriorik ere bada, hots, eta UPN edo CIAREN eraso gogorra eta zikina izan dela uste dutenek ez dituzte baketan uzten eskaldari gaisoak, etengabeko interrogatorioetan pozoina bota duena nor izan den jakin nahi bait dute. Lazaretoan daude lau koitardok, ordea, ez dute gogor gehiagorik zer izan ote denaz pentsatzen. Nahikoa dute noiz eta nola aterako ote diren pentsatzearik.

Hauxe dugu giroa, bada: pasilo gutziak hutsik, noizean behin bate mindua logetatik eta zutik dirahungo mohikanoek gure tumoa noiz izango ote den beldurrez. Gogor erasotzen du, gero! Pertsona

batekin lasai-lasai hitz egiten ari zarela, buelta eman eta hara non aurkitzen duzun eskua ipurdian duela pausu txiki batzuk emanez Roca jaunak bisitatzeke doanaren antz gutziarekin «ixaron momentu baten» esan eta alde egiten. Hamar minututara itzuli eta beste itxura argiago ageri zaigu: hori bai, sumo txiki batekin: «ez dakit b... zer da gaisoai ematen dieten likido hori?».

Roca jaunak inoiz baino bisitari gehiago eta asiduoa izan ditu, beraz. Baina egoera larriagotzen ari zaio Larraonako administratzaileari. Gorpuzta ez, inoiz baino hobeto daukala ematen baitu. Beste arazo bat sortu zaio gizagaisoari komunetan inoiz baino bisitari gehiagorik egon direlarik, beldur da kañerik ez ote duten gaina joko denak leherutz. Eta matrikulazio garria denean Larraonako «Colegio Mayor»ean, ez omen zaie gehiegi gustatuko matrikulatu garci kañerian leherketaren emaitza.

Zutik eta gogor dirautenak barrazki-jaleak dira. Talde horretako bat ere ez bait da erori oraindik, eta haragi-jaleak begi maltzurrez begiratzen dituzte «zuek ere eroriko zarete» esanez bezala. Dena dela, gutzi honek ondorioak izan ditu eta barrazki-jaleen zerrendak kristonako gorakada izan du gaitik eguneria. Beste batzuk oraindik ez dugu amore eman eta itxaropena azkenengo gaitzen dena dela pentsatuz, egunero abiasten gara jangela hutsara behar bada azken afaria izan daitekeenaren beldurrez. Ikusi egin beharko.

### Gaurko egitaraua

#### Antzerkigintza

Gorputz espresioa: gorputz motibapena eta interpretazioa. Jose Mari Carrere, J.M. Larrañaga eta Edurne Lasa. Maskarak arratsalde.

#### Bertsolaritza

Kopla haundiak: sailkapena, grabaketa, doinuak...

#### Filosofia

Zientziaren Filosofia gaur (III): teoria zientifikoaren ikusmolde estrukturalista. A. Ibarra.

Zientziaren Filosofia anarkista. X. Eizagirre.

Mahai inguruak: Newton eta Filosofia. J.R. Etxeberria, J. Duanioetxea, A. Ibarra eta A. Mtz. Lizarduikoa.

#### Historia

Nazionalismoa zertan den (espainiarra eta euskotarra). Errota taldea.

Nekazaritza eskolak XIX. mendean. J. Agirreazkuenaga.

Trebiñoren integrazioa: inkestak bat. M. Albisu eta I. Uraño.

#### Psikologia

Talde naturalen azterketa. Juanjo Arrosipide.

Adoleszentzia eta politika. Jose Valencia.

Bioenergetika eta talde dinamika. Lan taldea.

#### Soziologia

Euskara eta komunikabideak: Iparraldeko irratien esperientzia. L. Etxezarreta.

Jaurritzairen hizkuntz politika. L. Rodríguez.

#### Linguistika

Sintasi arazoa. A. Eguzkitza.

Euskal fonologia. L. Oñazderra.

Euskal azentuak: aditza

#### Natur zientziak

Itsas ekologia. A. Elösegi.

Sedimentologia eta orogenia. K. Núñez.

Euskal Herriko uraren zikloa. X. Iribar.

Erlazaintza. M. Aizpuru.

#### Nekazaritza


Zurkilgo planaren aurkezpena. F. Barandiaran.

Alfabetatze teknikoak

Maileguzko hitzak. Instanztak, ziurtagiriak.

#### Fisika

Mirari kuantitatiboa. Bi zirkuituetako esperimentua.



### Historia saila, ikerketari lehenetasuna

1980. urteko uztailean ospatutako Udako Euskal Unibertsitatean, Historia saila eraberrituz, egituraz aldatuz.

Urte horretan sortutako egitura deseginduko bada ere, baita osatzen zuen pertsonak ere alde egin, helburuak mantentzen dira. Gaurko Historia sailak, bere lekua oraindik erabat finkatu gabe badu, ez da izan helmuga ikusten ez duelako, bideak ezagutzen ez dituelako baidak.

Aurtengo egitarauari atxikiz, hiru hitzaldi mota ezberdin bereziki dituzkegu, gaiak, hizlariak eta egunak aurtuz. Uztailearen 21 eta 22an azaldu ziren aurtengo saioaren ardatza osatzen duten hitzaldiak. Atal honetan kokatzen diren sei gaiak, bat egiten dute puntu batean, nekazaritza mundua aztertzen dutela, nahiz eta bakoitzak bere ikuspuntuak. Ikastaroaren ardatza dira, ez bakarriz hitzaldiak bai zehatz bat aztertzeke aukeratuak izan direlarik; baita hizlarien ospe eta presteaeragatik ere.

Aurtengo azken multzoa beste hiru hitzaldirekin osatzen da, hiru-

retan ikasleak Historiako ikasleak dira. Gaur, Errota taldeak gai teoriko bat jorratuko du, Espainia eta Euskadiko nazionalismoaren arteko gatazka. Errota taldeko partaideak Madrileko Unibertsitate Autonomako ikasleak dira. Bihar, berriz, Gasteizko Historia Fakultateko ikasleak arituko dira, lehenengo hitzaldia Juan Luis Martinezek emango duelarik. «Irakaskuntza eta Euskera XIX. mendearen bukaeratik XX. mendearen hasiera arte» gaiak hain zuzen. Bigarrena, berriz, bideo bat izango da, Mikel Gorrotxategi eta Bilboko talde batek egina, Bizkaiko Meategi buruzkoa.

Hitzaldiekin amaitzeko, bi adierazpen, urtero bezala saileko bilera ospatuko da egoera aztertzeko, datoren urterako gaiak jartzeko eta egitura sendotzeko. Bestalde, osteguneko eta arratsalde partean, Filosofia sailak antolatutik, tertulia bat egingo da zientzia eta historiari buruz. Gaia interesgarria izango delakoan, ordu hori libre utziko zaie Historiako saileko, nahi duena joan dadin.